




LIBURUA

Emakume burujabea



GOTZON ARANBURU

**EMAKUME
BURUGABEA**
ANTXIÑE MENDIZABAL
ILUSTRAZIOAK: IRAIA OKINA
ELKAR, 2018

AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGUI

Liburua hasi bezain pronto pertsonaia bakarraren barne bidaian murgilduko gara. Testu eta irudiz osatutako bidaia zirrargarri eta iradokitzailean. Lurra galdua, gorputzetik erauzia eta hutsera etorritako pertsonaia aurkezten zaigu hasierako orrietan. Bizi-arnasarik ere ez duena. Irudietan, gona jantzita, zapata takoidunak soinean, ezpain gorridun emakume bat ikus dezakegu. Estu. Itota.

Hankez gabetzen da lehenengo, eta mugikortasuna mugatuko zaio. Arropaz ere gabetzen da. Eta biluzik, sustraiak hazten zaizkio oinetatik. Bere buruaz gabetzen da azkenean, itotzen duten pentsamenduez gabetuz.

Ezagutzen duen munduko leihoa itxita irekitzen zaio unibertsoarako atea; ikusmena, usaimena, ahotsa, plazera eta gor-

putza berreskuratzen ditu. Odola isurtzen du bizi berri batera erditzeko. Eta emakume burugabe izateari uzten dio emakume burujabe izateko. Anarrik *bere buruaz beste bat egitea* kantatuko luke.

Hainbat ahalduzte prozesu gogoratu dut liburua irakurri bitartean. Hasierako itolarria, gelditu eta galduta sentitzearen mina ondoren, eta aldaketa gertatzen deneko askatasun sententzia. Liburuaren estruktura zirkularra da, ordea. Etxea den gorputzean hasi eta etxea den gorputzean amaitzen da istorioa, nahiz eta hau bizi duen emakumea aldatu den.

Estilo poetiko eta fina darabilte idazleak eta irudigileak. Testua goxoa eta sakona da. Hotsen errepikapen etengabeak indarra eta irrika sorrarazi dizkit eta ispilu aurrean ahozgora irakurtzen aritu naiz, daitort. Erritmo propiodun

testua da, pausak errespetatuz irakurri beharrekoa. Irudiak sinbologiaz beterik daude, soilak izan arren esanahiz beteak. Koloreen erabilera ere berezia da: hasierako gorria iluntzen hasten da marroixka bihurtu eta ondorengo beltzera iritsi arte. Bukaera aldera soilik aurkituko dugu orri zuria eta arnasa. Testuak eta irudiak bata bestea ontzen dute oreka perfektuaren dantza dotorea eginez. Ondo eusten dute elkar akrobazia eta malgutasun adierazpenak egiten dituenen besteak.

Clarissa Pinkola Estés-en *Women Who Run With the Wolves* liburuak erakutsi omen dio etxerako bidea Antxiñe Mendizabali. Nire gorputzera bide bat erakutsi dit liburuak niri. Opari aparta, beste norbaiti edo geure buruari egiteko modukoa. ●